

OIARTZUN / Liburua, mundu hori

Gaur, hilak 23, Liburuaren Nazioarteko Eguna da. Liburua objektu gisa, modu askotara erabili daiteke, gauza askotarako, baina egun honek arrazoi jakin bat du: bultzatzea. Irakurzaletasuna bultzatzea, editorialen industria bultzatzea eta egilearen eskubideen aldetik jabego intelektualaren babesa bultzatzea.

Apirilaren 23a heriotzarekin dago lotua. 1616. urtean William Shakespeare, Inca Garcilaso de la Vega, Miguel de Cervantes gisako idazleak hil zirela esaten dute batzuk. Beste batzuk, ordea, hori horrela ez dela diote.

Zenbaiten esanetan, Cervantes apirilaren 22an hil zen eta 23an hilobiratu egin zuten, eta Shakespeare apirilaren 23an hil zen baina egutegi julianoaren arabera, egutegi gregorianoan egun hori maiatzaren 3a izango litzateke. Dena dela, Editoreen Nazioarteko Batasunak data hori proposatu zion Unescori eta horrek 1995ean onartu egin zuen.

Oiartzungo biblioteka, "txiki"

Manuel Lekuona Biblioteka 1992. urtean jarri zen martxan. Orduetik zerbitzua zabaltzen joan da eta bazkideak irabazten. Oiartzuar askok gogoratuko dute bazkide egiteko 200 pezeta ordaindu behar zirela. Denetariko liburuez gain, ikus-entzunezko dokumentuak, Internet... ere baditu, haur zein helduentzat.

Ana Alvarez bertako arduradunaren hitzetan, "liburutegia txiki gelditzen ari da, liburuak ezin kabiturik". Ehunka dokumentu dituzte eta non jarri jakin ezinda ibiltzen dira, baina "gustura" daudela esan du. Guneen inguruan ere hitz egin du: "Helduentzako gunea badago, txikientzat... baina irakurtzeko gunerik ez dago eta hori egongo balitz mailegu gehiago egingo lirateke".